



## ABDOMENENKO MINA DOLOR ABDOMINAL

Zure seme-alabak orain daukan klinika kontuan hartuta, hauxe da egindako diagnostikoa: **ABDOMENENKO MINA.**

### ZER DA?

Abdomeneko mina umeengan sarritan gertatzen den eta zehaztugabea den sintoma da; hainbat dira sorrarazi dezaketen arrazoiak, baina gehienak onberak dira (idorreria, hesteen mugimendua handitzea, gasak, beherakoa...). Batzuetan, molestia hau umei sarritan gertatzen zaizkien gaitzekin batera agertzen dira: amigdalitisa eta birusek sortutako arnas gaixotasunak.

### ZEIN DIRA BERE EZAUGARRIAK?

Umezarako abdomeneko min ohikoena honelakoa izaten da:

- Zehaztugabea, ondo mugatu gabea.
- Ez da iraunkorra, joan eta etorri egiten da; gehienetan, umea ondo dago, min hori ez daukanean.
- Gauez ez da esnatzen.
- Hobera egiten du kaka egitean edo gasak botatzean.

### ZER EGIN?

Arrazoa ezaguna bada (idorreria, beherakoa,...), tratatu egin beharko da.

Gehienetan, aldi-batekoa da, eta hobera egiten du atseden eta dieta bigunarekin (ez du jan behar ez txiklerik ez litxarreriarik).

### ZERI JARRI BEHAR ZAIO ARRETA?

Funtsezkoa da minaren eboluzioari adi egotea, beste koadro garrantzitsuago batzuetatik bereizi ahal izateko (apendizitisa, batez ere); horregatik, ondoko hauetakoren bat gertatzen bazaio, berriro aztertu beharko dute umea, hurbilen dagoen osasun-zentroan:

- Mina iraunkor egiten da eta abdomeneko beheko eskuinaldean kokatzen du.
- Abdomena konkortu egiten da eta gero eta tenkatuago badauka.
- Egoera orokor txarra.
- Kaka beltz oretsua (betun modukoa) edo odolarekin egiten du.
- Gorakoak behin eta berriro, batez ere berdexkak badira.

Umearen pediatriak kontrolatzea gomendatzen dugu.

Su hijo por la clínica que presenta en este momento ha sido diagnosticado de **DOLOR ABDOMINAL.**

### ¿QUE ES?

El dolor abdominal es un síntoma frecuente e inespecífico en los niños, que puede ser debido a diversas causas, siendo la mayoría benignas (estreñimiento, aumento del movimiento del intestino, gases, diarrea...). En ocasiones, esta molestia acompaña a infecciones frecuentes en los niños, como amigdalitis y enfermedades respiratorias producidas por virus.

### ¿CUALES SON SUS CARACTERISTICAS?

El dolor abdominal más habitual en la infancia suele ser:

- Difuso, mal delimitado.
- Inconstante, va y viene; generalmente cuando no tiene el dolor, el niño está bien.
- No despierta por la noche.
- Suele mejorar al hacer deposiciones o expulsar gases.

### ¿QUE HACER?

Si existe causa conocida (estreñimiento, diarrea, ...) habrá que tratar la causa.

Generalmente es transitorio y con reposo y dieta blanda, mejora (no tomar chicles o chucherías).

### ¿QUE VIGILAR?

Es fundamental vigilar la evolución del dolor para poder diferenciarlo de otros cuadros más importantes (apendicitis fundamentalmente), por lo que deberá ser valorado nuevamente en el centro de salud más cercano si:

- El dolor se hace constante y lo localiza en la parte inferior derecha del abdomen.
- El abdomen se abomba y se va haciendo progresivamente más tenso.
- Mal estado general.
- Hace deposiciones negras pastosas (como betún) o con sangre.
- Presenta vómitos continuos, sobre todo si son verdosos.

Recomendamos control por su pediatra.